

# EUSKARAREN Berripapera

## sumarioa

**1** II. Soziolinguistikazko mapa (1981-1996): Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera

**2** Antton Olariaga, Anton Abbadia saria 98  
Hizkuntzen jai  
Gijonen  
“Nor da nor?” jokoa Interneten  
Agenda

**3** Ihauteri garaia Euskal Herrian  
Expolangues azoka Parisen

**4** Euskararen Kontseilua Ipar Euskal Herrian  
Nemesio Etxaniz, bidegile (1899-1982)  
Kopuru kontua

## II. Soziolinguistikazko Mapa (1981-1996)

# HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA

**K**alean izango da laster II. Soziolinguistikazko Mapa. 1981etik 1996ra egin diren zentsu eta erroldetan euskarari buruz bildutako emaitzak xehe aztertze zeko aukera izango dugu, beraz. Izan ere, emaitza horiek argiro jaso ditu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak hiru liburu-kitan.

Argitalpen honek Euskal Autonomi Erkidegoaren eta lurralde bakoitzaren egoera ezezik, eskualde eta udalerrri bakoitzarena ere azaltzen du. Gainera, 10.000 biztanletik gorako udalerrriak direnetan, auzoka ere eskaintzen ditu emaitzak.

Honako honetan, hizkuntza-gaitasunak Euskal Autonomi Erkidegoan izan duen bilakaeraz ariko gara.

1981etik 1996ra bitartean, EAEko euskaldun eta elebidun hartzaileen kopuruak gora egin du. Behera, aldiz, erdaldun elebarrak. Aldi horretan 190.682 euskaldun eta 82.300 elebidun hartzaile irabazi ditu EAEk. Era berean, 226.998 erdaldun elebarrak galdu ditu.

Ondorioz, %44,2 hazi da euskaldunen kopurua eta %34,2 elebidun hartzaileena. Erdaldun elebarrak %17,5 jaitsi da. Hamabost urte horietan azken bostak izan dira emankorrenak, tarte horretan ia 90.000 euskaldun irabazi direlako; hau

da, euskaldunen hazkunde osoaren ia erdia bost urte horietan izan da.

Lurraldeka, hirurek izan dituzte euskaldunen gorakada handiak. Bizkaiak 94.000 euskaldun irabazi ditu, Gipuzkoak 67.000 eta Arabak 30.000 inguru. Nabarmena da Arabaren igoera, euskaldunen kopurua hiru aldiz handitu baitu.


Eskualdeetan joera bera izan da nagusi, eskualde guztietan igo baita euskaldunen portzentaia eta jaitsi, ostera, erdaldun elebarrak. Denetan, Kantauri arabarrak izan du euskaldunen portzentaia hazkunderik handiena (15,7 puntu).

Udalerriei dagokienez, ikusgarria da zenbait herritan izan den euskaldunen igoera. Arabako eta Enkartzioetako herri txiki eta erdaldunetan izan dira hazkunderik handienak. Gainera, 81ean ez bezala, 96an ez dago euskaldunik ez duen herririk.


Herri handietan ere, guztietan hazi da euskaldunen kopurua. Bilbo Handiko herriak dira hazkunderik handienekoak. Barakaldok, adibidez, 7.400 euskaldun irabazi ditu, 4.600 Portugaletek, 2.400 Sestaok eta 8.900 Getxok.

Hiriburuetan, hiru aldiz handitu da euskaldunen kopurua Gasteizen -22.000 lagun gehiago dira-, bikoiztu egin da Bilbon -26.000 euskaldun gehiago dira, beraz-, eta %64ko hazkundera izan du Donostiak, 21.500 euskaldun gehiago irabaziz.

EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOA, UDALERRIKA (1981)  
COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA, POR MUNICIPIOS (1981)



EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOA, UDALERRIKA (1996)  
COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA, POR MUNICIPIOS (1996)



81etik 96ra, EAEn, %44,2 hazi da euskaldunen kopurua eta %34,2 elebidun hartzaileena. Udalerriei dagokienez, ikusgarria da zenbait herritan izan den euskaldunen igoera. Arabako eta Enkartzioetako herri txiki eta erdaldunetan izan dira hazkunderik handienak.

## laburrak

HIZKUNTZEN JAIA  
GIJONEN

Hizkuntzen Jaia izango da Gijonen martxoaren 11, 12 eta 13an. Europako programa baten barruan dago Hizkuntzen Jaia, eta hizkuntzen praktika areagotzea du helburu. Badira 21 urte ere Hizkuntzen Jaia Belgikan egiten denetik. Duela lau urte hasi ziren jai hau egiten Luxenburgoren eta Italian, eta lehenengo aldiz egingo da Espainiako Estatuan. Gijon hiriko Hizkuntz Animaziorako Zentruak antolatu du eta ikasle eta irakasleei dago zuzendurik batik bat. Zinema saioak izango dira jatorrizko bertsoan, karaokea, antzerkia, jatorrizko hitzuneekin mintzatzeko aukera e.a. Informazio gehiago 985356735 telefono eta faxean.

"NOR DA NOR?"  
JOKOA INTERNETEN

Interneteko euskarazko lehenengo jolasa sortu dute. Bilboko *Cibertextos* argitaletxeak jarri du abian eta ingelesezko jolas baten aldaera da. Jokalariak hamar argazkitan ageri diren pertsonaia ezagunak nor diren asmatu behar dute. Jolasa ikusteko helbidea da: [www.ivasca.com](http://www.ivasca.com).

Anton Abbadia saria 98

## ANTTON OLARIAGA



**1**998ko Anton Abbadia saria jaso zuen Antton Olariagak abenduaren 17an. Gipuzkoako Diputazioaren sariak euskararen alde egindako lana aitortu izan dio elkarte edo pertsona bati.

Marraskilari eta ilustratzaile eza-guna da Antton Olariaga eta berak egindako marrazkien bitartez euskararen mundua aberastu izana eskertzeko balio du sariak. *Zakilixut* da Olariagaren pertsonaiarik famatuena, garai bateko *Eginen* argitaratu izan zuena eta egun *Euskaldunon Egunkarian* kaleratzen duena.

Olariagak 1974an egin zituen lehen marrazkiak, *Zeruko Argiarako* egin ere. Harrezkero hainbat aldizkaritan egin zituen komikiak, diktadura eta trantsizio giroa erakutsiz. Ordukoak dira *Kaleko* eta *Hormasprayko* pertsonaiak, adibidez. *Ipurbeltz* komiki aldizkariaren sorreran ere izan zen eta bertako kolaboratzaile urte askoan. Testuliburuak eta haur eta gazte-literaturako liburuak ere ilustratu izan ditu, bai eta helduen literaturakoak ere. Ilustratu dituen liburuen egileen artean dira, adibidez, Bernardo Atxaga, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Juan Kruz Igerabide, Patxi Zubizarreta eta Joxe Arratibel.

Antton Olariagak baino lehen, Arrasate Euskaldun Dezagun taldeak jaso zuen Abbadia saria 1997an, eta Arantzazuko Frantzizkotarrek, berriz, 1996an, saria abiarazi zuten lehenengo urtean, alegia.



## agenda

KULTUR EKITALDIAK  
MIARRITZEN

**O**hi dutenez, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Miarritzen. Hilaren 21 eta 28an "Hinki-hanka" erreztaldia egingo du Bordaxuri taldeak. Hilaren 27an "Kantu goxoak Biarritzen" saioa izango da, Anje Duhalderen eskutik.

## ZINEMA IRUÑEAN

**E**uskarazko zinemaldia Iruñean, nafar hiriburuko Karrikiri elkarteak antolaturik, bertako udalaren laguntzaz. Urtarrilaren 15ean hasi zen eta martxoaren 26 arte iraunen du zikloak.

Filmak ortziralero erakusten ari dira, Golem zinemaleketan. Filmen izenak dira: "Hodei Iragankorrak", "Errebelde baten egunkaria", "Wallace & Gromit", "Corina, Corina", eta "Behiak". Dozena erdi labur ere emanen dituzte.

## IHAUTERI GARAIA EUSKAL HERRIAN

**E**rromatarren garaitik datozen festak ditugu ihauteriak. Tradizio katolikoko lurraldeetan egin ohi dira batez ere, garizuman sartu aurretik. Euskal Herrian, aspaldiko elementu sinbolikoak gorde dituzten ihauteriak ditugu, batetik, eta modernoagoak, bestetik. Lehen taldekoak ditugu Zuberoako maskaradak eta Lantzeko ihauteriak, adibidez, eta bigarrenekoak, aldiz, Tolosakoak eta hiri

handietan egiten direnak. Bateko eta besteko ihauterien arteko kontrasteak bistakoak dira eta hala hedadura geografikoari nola egiteko moduari dagokionez alde handia dago. Herri gehienetan ere, ordea, euskara dute hizkuntza, ihauteriei loturiko pertsonaia eta ospakizunek agerian erakusten dutenez. Ondoko mapak tradizio handieneko ihauterietaririk batzuk adierazten ditu.



### Eta Zuberoan, maskaradak

**M**askaradak dira ihauteririk goiztiarrenak. Aurten berean urtarrilaren 10ean egin zuten lehenengo maskarada Idauze-Mendiko gazteek eta apirilaren 25ean egingen dute azken emanaldia. Hona maskaradek otsailetik apirilera egingen dituzten agerraldiak:

- Otsailak 7, Altzürükü
- Otsailak 14, Altzai
- Otsailak 21, Muskildi
- Otsailak 28, Arrokiaga
- Martxoak 14, Ligi
- Martxoak 20, Maule
- Martxoak 28, Urdiñarbe
- Apirilak 4, Barkoxe
- Apirilak 11, Larrañe
- Apirilak 18, Iruri
- Apirilak 25, Mendi

**EUSKARA  
PARISKO  
expolangues  
AZOKAN**

**H**izkuntza, kultura eta liburuari buruzko Expolangues erakusketan izan da euskara, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekin antolatutako standean. Urtarrilaren 27tik 31ra bitarte egin da Frantziako hiriburuan eta, aurten, "Frankofonia" izan du lema.

Azoka sortu eta hiru urtera hasi zen Parisko azokara joaten Eusko Jaurlaritzak eta laster hartu zuen bide bera Nafarroako Gobernuak, joan den hamabi urte honetan bi erakundeak elkarrekin izan direlarik. Ohi denez, euskarari buruzko hainbat material erakutsi dituzte munduan gisako erakusketarik garrantzitsuena den hizkuntzen azokan.

**Oharra:** Urtarrileko *Euskararen Berripapera*ren alean *Ahoz aho, belaunez belaun* kanpainak hiru urtean egin duen ibilaldiaren berri eman genuen, eta mapa ezarri. Tamalez, herriak oker ezarrita ageri ziren mapa hartan eta barkamena eskatzea dagokigu.

## EUSKARAREN KONTSEILUA

Ipar Euskal Herrian

**E**uskararen Kontseilua abiarazi asmo du Euskal Kulturaren Sustengurako Herrien arteko Sindikatuak. Erakunde honek gidatuko du Euskararen Kontseiluaren egitasmoa Hezkuntza Nazionalarekin batera, baina ez dira bakarrik ariko. Laguntzaile izanen dituzte Unibertsitatea, Irakaskuntza Federazioak, Kontseilu Orokorra, Akitaniako Kontseilua, eta Akitaniako Kultur Ekintzen Zuzendaritza. Hain zuzen, partaide hauen iritziak biltzen hasia da Sindikatua, hurrena Hezkuntza Nazionalarekin harremanetan sartzeko.

Ildo berean, Pirineo-Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak Hizkuntza Politikarako Zerbitzua sortzea erabaki du, Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Zuzendaritzaren baitan. Iragarri dutenez, gainera, zerbitzu horren buru egingen duen pertsona egokiaren bila ari dira.

## NEMESIO ETXANIZ

(1899-1982)



**E**hun urte beteko dira aurtenean Nemesio Etxaniz jaio zenetik. 1899an Azkoitian sortua, Lekaroz eta Comillasko apaizgaitegietan ikasi zuen. Apaiztu eta Bergarara bidali zuten. Garaiko euskal aldizkari asko-

tan idatzi zuen eta gerraurrean bertan nabarmendu zen idazle eta olerkari lanetan. Gerra garaian atxilotu eta Burgosa eraman zuten. Askatasuna lortu eta Deba, Zumaia eta Azkoitian ibili zen apaiz, gerraurreko literatur giroa berpizten ere saiatu zelarik. Olerkigintza eraberritzen ahalegindu zen, gaiaren eta formaren aldetik. *Lur berri bila* poema bilduma argitaratu zuen 1967an eta ordurako hainbat langintzatan ari izana zen: ikastolak eragiten, euskal kantagintza berria bultzatzen, irratirako gidoiak idazten... Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1955ean, eta euskaltzain ohorezko, berriz, 1979an. 1982an hil zen Donostian, euskararen bidegile handi izan zena.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

### Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 18 80 98  
e-mail: M-Meaurio@ej-gv.es

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

e-posta: .....

## kopuru kontua

**A**ski izan dira bost aste Bernardo Atxagaren *Bambulo* pertsonajearen ibilaldiak biltzen dituen *Lehen Urratsak* liburua agortzeko. Bost mila aleko edizioa egin zuen Erein Argitaletxeak eta Durangoko Azoka baino lehen kaleratu. Olentzero bezperako ale gehiagoren eske ziren liburudenda eta banatzaileak. Bost mila ale bost astean. Euskarazko liburugintzaren marka berria.

